


BERTSOLARIAK HISTORIALARI: LEHEN GERRA KARLISTA

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

EGILEA: IKER URIARTE URRUTIA

HISTORIAKO GRADUA

2018-2019 IKASTURTEA

GRADU AMAIERAKO LANA

HISTORIA GARAIKIDEN DEPARTAMENTUA

TUTOREA: SUSANA SERRANO ABAD

LABURPENA

Nire lan honek, Lehen Gerra Karlistan datza. Horregatik, liberalismoa Espainian sartu zen garaia aurrekaritzat hartuta, Fontainebleauko itunetik Bergarako akordioa arteko denboran sakonduko dut, nola ez, batez ere 1833. urtean kokatzen delarik lanak aztergai duen garaia hasiera. Gerrate horri lotuta, foruen eta nire lanerako iturri gisa erabiliz beraien balio historikoa erakutsi nahiko nukeen bertsoen inguruan ere sakonduko dut.

Liberalak, karlistak, Zumalakarregi, Lege Salikoa, Bilbo eta Donostiako gertaerak, Bergarako akordioa... ardatz harturik eraikiko dut nire kontakizuna. Bi bandoetan banatutako herri baten historia izango da: kostaldea nekazaritza eremuaren aurka, liberalak absolutisten aurka, karlistak isabelinoen aurka edo nekazari eta langileak burgesiaren aurka. Bakoitzak bere helburuak dituenetz, haiengatik borrokatuko dira Isabel eta Karlos Maria Isidroren izenean, baina, bazekiten noren izenean borrokatzen zuten? Eta baldin bazekiten, horregatik borrokatzen zuten edo beste helburu foruzale zein komertzialak jarraitzen zituzten? Galdera hauei erantzuten eta balizko erantzunen gainean irakurleari pentsarazten, saiatuko naiz hurrengo orrialdeetan.

Ordea, nire helburua ez da Lehen Gerra Karlistaren interpretapen soil eta aldi berean, garrantzitsu horretan gelditzen. Izan ere, lehen esan dudana bezala, bertsoaren balio historikoa erakutsi nahi diot irakurleari eta horregatik, nire lanean pasarte bakoitzaren inguruko bertso garaikideren bat aurkituko du irakurleak, ohiko bibliografia bidez kontatzen dugun hori modu hurbilago batean, hau da, hura bizi eta hartaz kantatu edo idatzi zuen bertsolari baten gorputzetik bizi dezan. Modu berean, bertsoak ez ditut pasarte-kontalari bezala bakarrik erabiliko, baizik eta nire hipotesi edo usteak argudiatzeko ere bai, planteatzen dudana hori 1830eko hamarkadako biztanle baten hitzekin uztartuz, alegia.

Nire irakurlea beraz, Euskal Herriaren historia garaikideko une garrantzitsuenetako batean zehar aurkituko da, bertsoz bertso eta pasartez pasarte Lehen Gerra Karlistaren inguruko ezagutza modu kronologiko eta jarraitu batean jasoz. Zumalakarregi, Isabel, Maria Kristina, Espartero, Karlos Maria Isidro eta abarren munduan kokatuko dut irakurlea, baina, baita Xenpelar, Iparragirre, Bizenta Mogel, Pedro Mari Otaño eta beste hainbat bertso sortzaile ezezagun eta anonimoren garian ere, boterea eta bertsoa oso desberdinak diren bi mundu izan arren, garaikideak izaki, biak uztarturik. Lehen Gerra Karlistako Euskal Herriko irudi hobeto eta kritikoago bat sortzen lagunduko digutelako.

AURKIBIDEA

SARRERA.....	4.orr
1. LIBERALISMOAREN HASTAPENAK ESPAINIAN.....	5.orr
1.1. Cadiz: Sistema berri bat	5.orr
1.2. Absolutistak eta liberalak: Aldaketak agintean	7.orr
1.3. Hiriak eta monarkak	8.orr
2. LEHEN GERRA KARLISTA	10.orr
2.1. Zumalakarregi	11.orr
2.2. Lege Salikoa	13.orr
2.3. Hiriak gerran	13.orr
2.3.1. Donostia	14.orr
2.3.2. Bilboko setioa	16.orr
2.4. Bergarako akordioa	20.orr
3. EUSKAL LANDA: FORUZALEA EDO KARLISTA?	21.orr
4. BERTSOA	23.orr
4.1. Egileak	24.orr
4.2. Kontakizuna edo propaganda: Non dago muga?	25.orr
5. KONKLUSIOAK	27.orr
BIBLIOGRAFIA.....	29.orr

SARRERA

Liberalismoa, XIX. mendean mendebaldeko munduan zehar zabaldu zen mugimendu bat da, gizon zuri ororen berdintasun juridikoa bilatzen eta botere banaketa batean sinesten duena¹. Beraz, ideia liberalak hedatu ziren herrialdeetan ezinezkoa izan zen absolutismoa onartzea, hori izango zelarik Gerra Karlisten zergatia, hau da, liberalek eta absolutistek, Isabel II.aren eta Karlos Maria Isidoren irudiei jarraiki, bere eredu politiko, sozial eta ekonomikoa ezartzea lortzeko indarraren bidea erabili zutela.

Euskal Herria, Espainiako sistema politikoa zein izango zen erabakiko zuten gerren epizentro bilakatu zen, batez ere Lehen Gerra Karlistan, horren inguruan bibliografia anitza dagoelarik: liburuak, artikuluak, testigantzak... baina, euskal kultura ere hor daukagu eta nola ez, euskal kulturaren sendo sustraituak dauden bertsoak ere bai. Zer erakusten digute bertso horiek Lehen Gerra Karlistaz? Nork idazten zituen? Zein funtzio zeukaten? Lan honetan, galdera hauen erantzunak bilatzea izango da nire helburua, lanaren egitura ondokoa izango delarik: aurrekariak, Lehen Gerra Karlista, foruen auzia eta bertsoaren nondik norakoak. Azkenik, konklusio batzuk sortzeko, alde batetik gerrari dagozkionak eta, bestetik, bertsoenak. Horretarako, nire metodologia, XIX. mendearen lehen erdialdeko bertsoak bilatu, haietatik ahal beste informazio atera eta aipatzen dituzten pasarteak beste iturri bibliografiko batzuekin sakontzea izango da. Hala ere, eta nahiz eta lanaren gorputza modu horretan egingo dudan, atal batzuk bertsoen laguntzarik gabe ere azaldu beharko ditut, lantzen nagoen garaiaren deskribapen hobeko bat egiteko.

Lehen Gerra Karlistako bertsoen inguruan lan gehien egin duen ikertzailea, Antonio Zavala da, zeinen, “Karlisten leenengo gerrateko bertsoak” liburua nire lanaren oinarria izango den. Aldi berean, oso aipagarria da Bertsozale Elkartearen lana ere. Elkarte hau, gaur egun bertsolaritzaren inguruko mundua koordinatzen duena dela esan daiteke, datu baseak, bertso saioak, txapelketak... mundu honetako antolatzaile nagusia da eta nire lanarekiko erlazioari dagokionez, hango datu baseak izango du garrantzia, pertsonaien inguruko informazioa biltzeko, bertsoak bilatzeko.... Elkartearen eginkizunetako bat, bertsoaren inguruko jakintza edo informazioa batzea denez, honen historia biltzen ere aritzen dira, horren eredu da, adibidez, Villabonan dagoen Xenpelar dokumentazio zentroa. Nola ez, bertsoaren historiaren bilketa

¹ Definizio hau, liberalismoa esaldi batean azaltzeko intentzior sortu dut, baina liberalismoa, besteak beste ondoko liburuetan sakondu daiteken fenomeno zabal bat da: *El liberalismo politico* (John Rawls) edo *Ensayo sobre el catolicismo, el liberalismo y el socialismo* (Juan Donoso Cortes et al).

horretan, Gerra Karlisten garaiarekin zerikusia duten bertso, bertsolari, doinu edo gertakariak biltzen dituzte.

1. LIBERALISMOAREN HASTAPENAK ESPAINIAN

Ez zen Gerra Karlistarik izango, herriak lehengo absolutismoa onartu balu; ideia liberalen eta mundu berri baten nahiak bultzatutako egoera bat izan zen Lehen Gerra Karlista. Bestela, gehienez ere, ondorengotza gerra bat izan zitekeen Karlos eta Isabel II.aren jarraitzaileen artean, baina hau, hori baino askoz gehiago izan zen, sistema aldaketa baten inguruko gerra, alegia. Baina nondik dator liberalismoa? Liberalismoaren inguruko zein gertaera izan ziren Espainian gerra karlisten aurretik? Modu labur batean, 1833an hasiko zen gerraren aurrekariak aipatuko ditut; Cadizeko konstituzio “liberaletik” Fernando II. aren heriotzaraino.

1.1. Cadiz: Sistema berri bat

Cadizeko konstituzioa da espainiar marko juridikoko lehenengo mugarri liberala, bertara iristeko ordea, Fontainebleauko itunean kokatuko gara.

Frantzia, iraultzaren garaitik ideia liberalen zabaltzaile bihurtu zen eta horretan, garrantzia oso handia izan zuen Napoleonen garaiak, izan ere, honek bere konkista prozesuekin eskuratutako lurraldeetan konstituzio liberalak sortzeari ekin zion. Orduan, 1807. urtean, Espainiak eta Frantziak Fontainebleauko ituna sinatu zuten, Napoleonek Portugal konkistatu nahi zuelako, Ingalaterraren aliatua izaki, Frantziaren etsaia zena. Ordea, Napoleon Portugalerako bidean zegoenean, Espainia konkistatzen hasi eta 1808ko Baionako abdikazioak medio, bere anaia Jose Bonaparte ezarri zuen errege, zeinek, gutxi iraun zuen Espainiar tronuan, Dupont eta Junot jeneral frantsesei gailendu eta Fernando VII.a erbestean zen bitartean batzorde zentral espainiarrak gobernuaren kargua hartu zuelako, frantziarrei, 1808tik 1814raino luzatuko zen Independentzia Gerra deklaratu (Barruso et al, 2005: 29).

Nahiz eta Baionan Napoleonek Espainiarentzat konstituzio liberal bat ezarri nahi izan zuen (gutun xedatu bat idatzi zen), Espainiako lehen konstituzio liberala, Cadizen sortu zen 1812an eta hori izan zen gerora, Gerra Karlistetan liberalen eta absolutisten artean izango ziren dialektiken lehen pausoa (Barruso et al, 2005: 36), liberalismoa jada errealitate bat zen Espainian.

Goazen lan honetan lehen aldiz, bertso batek zer erakutsi diezaguken ikustera. Bertso hauek, Hirurteko Liberalaren bukaerakoak dira eta sortako zenbait bertso, liberalen

indargaltzeaz pozik agertzen diren arren (bertso horiek kasu honetan ez ditut bildu), nik Cadizeko konstituzio honetarako absolutistek zuten ikusmoldea erakusteko erabiliko ditut:

Politika izena	Abade gutxi eta	Kinta ta milizijak
daben damatxua,	euren gisakuak,	lantzian ta sarri,
Kadiztik agertu zan	arrozturik betiko	ez deusku euskaldunoi
txito apainduba.	leengo legekuak,	lan txarra ezarri.
Berba labanak eta	dotrinatxu eurenak	Agur gure forubak,
barrez arpegija,	nai ez ditubenak,	agur noblezia,
barruba euki arren	izan arren Volterren	koldarturik balego
ez txito garbija.	ta naiz Rusorenak.	emengo jentia.

(Zavala, 1992: 25-27)

Hor ditugu beraz, bertso sorta batetik ateratako hiru bertso, eman ahal dizkiguten datuengatik erabilgarrienak iruditu zaizkidanak. Zein ondorio atera ditzakegu bertso hauetatik? Lehenengoak, testuinguruan kokatzen gaitu: "...damatxua, Kadiztik agertu zan txito apainduba... barrez arpegija, barrua eduki arren ez txito garbija". Cadizetik agertu zen dama hori konstituzioa da, "la Pepa" izenez ere ezagutzen zena, eta argi dio egileak: kanpotik barre egiten duena, baina, barrua ez duena garbia, hau da, kanpotik ona dirudiena baina barrutik ez dena ona. Dirudienez, egileari ez zaizkio ideia liberalak gustatzen.

Bigarren bertsoak aldiz, Voltaire eta Rousseau aipatzen ditu², ideia liberalak eta frantziarrengandik izandako influentzia uztartuz. Azkenik, hirugarren bertsoan, garrantzia berezia eman nahi diodan atal bat aipatzen du: Foruak. Hauek, lanean zehar landuko ditut zehatzago, baina liberalismoak berdintasuna bilatzen badu, euskal herritarrek lehenagotik zuten euskaldunen arteko berdintasunaren sinboloaz ari gara. Bestalde, "...Agur gure forubak...koldarturik balego hemengo jentia" foruengatik liberalismoaren aurka borrokatzeko prest agertzen al da? Absolutismoa kontuan izan gabe? Karlista euskaldunak ere ez al ziren bide horretatik joango?

Liberalen lehen mugimendu hauek, lehenagoko urteetatik zetorren "foruak bai edo ez" dialektika azaleratu zuten. Nahiz eta Independentzia Gerraren gerizan foruen gaineko atentzioa txikitu, bai Baionako abdikazioetan eta baita Cadizeko gorte konstituziogileetan ere, foruen aurka agertu ziren, konstituzioa indarrean zegoen bitartean, hauek indargabetzeraino (Barruso

² Egileak, "Volter" eta "Ruso" idazten du. Kontuan izan behar da, egileak izen horiek idatzita ez zituela ikusiko, entzun bakarrik egingo zituen, hori dela eta, ahoskatzen diren moduan idatzi ditu. Gainera, posiblea da egileak idazten eta irakurtzen ere ez jakitea eta bertso papera, entzule batek bildua edo ahoz-ahoz transmititu eta ondoren idatzia izatea.

et al, 2005: 35), baina, egoera hori ez zen askorik luzatuko, laster itzuliko baitzen Fernando VII.a.

1.2. Absolutistak eta liberalak: aldaketak agintean

Cadizeko konstituzioa finkatuta, aurrera egiten zuen Espainiak Independentzia Gerran eta 1813ko abenduaren 11n, Napoleon, bake bila joan zen Baionan abdikatu arazi zuen Fernando VII.aren gana, berarekin, “Valençay”-ko ituna sinatu eta hau berriro ere Espainiako erregetzat onartuz (Artola, 1999: 403). Ordea, Espainia aurreko urtean idatzitako konstituzio liberal batek zuzentzen zuen eta Fernandok, Baionako abdikazioen aurretik zituen boteretako asko galduak zituen jada.

Botereen galerak, ez zuen Fernandoren bidea geldituko eta egoera horretan, Lehen Gerra Karlista arte iraungo zuen gobernu aldaketen garai batean sartzen gara, absolutista eta liberal, bata bestearen ondoren, gobernu kontrolatzen hasiko zirelarik. Fernandoren itzulerak eman zion hasiera garai horri: “*Nire intentzioa konstituzio hori, gorte jeneralen dekretuak onartu edo konstituzioaren gainean zin ez egitea baino gehiago da, nire intentzioa dekretu eta konstituzioak baliogabetzea da bai gaur eta baita beti, ezer gertatu ez balitz bezala*”. (Artola, 1999: 407)

Esaldi hori, Fernandok botere absolutua berriro hartzeko zuen intentzioaren erakusgarri dugu eta prozesua luzea izan zen. 1814ko apirilaren 12an kokatu behar gara hasteko, egun horretan gorteetako partaide ziren absolutistek “Persen Manifestua” idatzi zutelako, horrela, monarka itzultzea, honek botere guztiak jasotzea eta konstituzioa bertan behera utzia izatea nahi zutela erakutsiz. Bide horretatik jarraituz, Elio jeneralak, apirilaren 16an Valentzia hartu zuen bere armadarekin, Fernando VII.ari laguntzekotan tropak prestatu eta hortik Madrilera joko zuelarik, bertan Eguia jeneralarekin batzeko.

Eguia izan zen estatu kolpea emateko arduradun nagusia, 1814. urteko maiatzaren 10 eta 11 bitartean. Lehen egunean, ministro asko giltzaperatu zituen arren, bigarren eguna izan zen garrantzitsuena, Fernandoren idazkiak argitaratu, gorteak disolbatu eta pertsonaia liberal garrantzitsuak giltzaperatu zirelako. Indarra hartzen zeudenez, estatuko sektore absolutisten mobilizazioa sortu zen liberalen aurka, bai kaleetan eta baita egunkarietan ere (Artola, 1999: 406-409). Garai absolutista itzuli zen eta berekin foruak ere bai.

Sei urte soilik iraungo zuen, ordea, absolutismoak, izan ere Riegoren matxinadarekin, beste sistema aldaketa bat jasan zuen Espainiak, sei urte ondoren atzera itzuliz eta besteak beste,

Cadizeko konstituzioa berriz indarrean sartuz eta foruak abolituz. Orduan Espainian, gorteeek garrantzia handia irabazi zuten erregearen aurrean eta sufragio zentsitarioaren bitartez garatzen zen herrialde “liberal” bat izatera itzuli zen. Foruak abolitu baziren, beraien eragina ere bai eta foruen historian oso ezaguna den gertakari baten garaian gaude: aduanak Ebrotik kostaldera mugitu ziren lehen aldiz, benetako aldaketa 1841ean izango baitzen..

Baina, bere izenak esaten duen moduan, garai honek, hiru urte baino ez zituen iraun eta, Hirurteko Liberalaren bukaerako Euskal Herriari begiratzen badiogu, kasik Gerra Karlistan gaudela pentsa genezake, izan ere, jada, altxamendu absolutistak eta hartatik eratorritako tentsioa zegoen Euskal Herrian, gainera, altxamendu horietako buruzagi asko hamar urte geroagoko gerran aurkituko genituen. Ordea, nahiz eta altxamenduek eta tentsioak, sistema liberalak zuen oreka falta erakutsi, Hirurteko Liberala, 1823ko urriaren 1ean, etorritako Aliantza Santuak, bere “San Luisen ehun mila semeak” izeneko armadarekin, suntsituko zuen.

Zer gertatu zen absolutismoaren ezarpen berria eta gero Euskal Herrian? Bada, esan bezala, Euskal Herriko altxamenduak absolutistak izan zirenez, Fernando VII.ak eta Aliantza Santuak, beraien alde egin zutela sentitu zuten, horren esker on gisa, sistema forala berriro ere berrezarri zutelarik. Hemendik aurrera, Lehen Gerra Karlista hasi bitartean, absolutismoa, hamarkada doilorra izango zen Espainian.

1823tik aurrera zabalduko ziren mugimendu antiliberaletan, monarkiak baino autoritate foralek jardun zuten, izan ere, monarkia oso ahuldua zegoen. Gainera, burgesia eta gobernu liberalarekin erlazioa zutenak, politikoki galaraziak gelditu ziren. Agustin Iturriaga, Villafrancako kondea, Pedro Novia de Salcedo... ziren pertsonaia boteretsu berriak, nekazaritza munduko nobleak guztiak ere. Liberalei aldiz, herrialdea pobretzea leporatzen zitzaien. Euskal Diputazioek ere absolutisten alde egin zuten, ahal handiak jaso zituzten (polizia, udaletxeen kontrola...) horrela, euskal gizarte armatu bat garatzeko bidea hartu eta armatzen ez zen hori, liberala izatearen susmagarria izango zelarik. Gainera, mugak ere babestu edo kontrolatu egiten ziren, kanpotik liberalen eraginik ez sartzeko (Barruso et al, 2005: 37-40).

1.3. Hiriak eta monarkak

Aurrekari hauetan zehar, Lehen Gerra Karlistan gertatuko zen bezala, Espainia populazio liberalaren eta absolutistaren artean banatua zegoen. Euskal Herria ere horren parte zen eta modu sinple batean esanik, liberalak hirietakoak eta absolutistak landakoak zirela esan

daiteke (Barruso et al, 2005: 45). Hari horretatik tiraka sartu nahi nuke Bilbo eta Donostiako hiritarren izaeran, izan ere, hara zer esaten diguten garaiko bertsoek hiritarrez:

Laugarren egunean,	Denbora laburra da	Piramide galantak
Garagar illean,	gelditzen zaiguna,	edo metarriyak
degu korpus bezpera	baña borondatea	plazaren bi aldetan
aurtengo urtean;	aundiya ta ona;	berdin ipiniyak,
egun artan sartuko	egin dezagun bada	gutziz ederrak eta
dirade goizean	gogoz al deguna,	ekusigarriyak,
errege ta erregeña	gabaz eta egunaz	egunaz itxugarri,
Donosti lurrean.	utzi gabe lana.	gabean argiyak.

(Zavala, 1992: 75-78).

Hara hor, Fernando eta Maria Josefa Amalia³ Donostiara “laugarren egunean, Garagar illean” iritsiko direla dioten bertsoak. Ordea, informazio hori baino askoz gehiago esaten digu bertso sorta honek. Adibidez, “Denbora laburra da gelditzen zaiguna... egin dezagun bada gogoz al deguna”. Hau da, errege erregeinen etorrera aurretik, denbora gutxi zeukatela dio eta gogotsu lan egin beharko dutela “piramide galantak... gutziz ederrak eta ekusigarriyak” edo sortako beste bertso batzuetan aipatzen dituzten, banderaz apaindutako txalupak, Nafarroako zezen onenak... biltzen edo egiten⁴.

Bertso hauetan, argi ikusten da hiria edo behintzat, bertsoaren egilea ez zegoela absolutismoaren aurka⁵, egoera hau, gutziz desberdina izango da Lehen Gerra Karlistan. Bilbotarrek ere, donostiarrek egin legez, erregearen etorrera kontatzen digute:

Ezin dogu estaldu	Bere emazte maite
poza bularran	Josefa Amalia
Bagillaren hamasei-	ikustia Bizkaijan
garren egunian.	da atsegin betia,
Ordu zoragarrija	izanik ain andija
Bizkaiko lurrian,	da bere onestia,
dakuskuna Fernando	jakituna ta doe
begien aurrian.	guztien jaubia.

(Zavala, 1992: 93-94)

³ Josefa Amalia, Fernando VII.aren bigarren emaztea izan zen, 1829 hila (Canal, 2000: 51).

⁴ Kasu honetan, beste askotan bezala, guri, gertatutakoaren kontakizuna iristen zaigu, hau da, gertatu zena eta egin nahi zutena. Ordea, bertso paper hori idatzi zen unetik begiratzen badugu, kontakizun bat baino gehiago izan daiteke, zeren bai, egia da erregeak doazelarik egin beharreko lanak zeintzuk diren kontatzen dituela, baina, propaganda funtzioa ere izango zuen, herritarrek irakurri eta lan horietara abiatzeko.

⁵ Beti konturatu behar gara, bertsoaren egilea pertsona bat dela, eta bere norbanakotasunetik begiratu behar zaiola. Beraz, bertso batetik ezin dugu ebatzi nolakoa zen hiriaren populazioa osoa, gainera, ideologia amankomun bat ez dugu inoiz inon aurkituko.

Donostiako, zein Bilboko kasu hauek, Lehen Gerra Karlistaren aurretik Fernando eta bere bigarren emaztearekiko, Amaliarekiko, miresmen bat bazegoela erakusten digute, hau da, erregearen alde zeuden euskal hiriak eta ez da nabari hurrengo urteetan gertatuko zenaren aztarnarik⁶. Ordea, absolutismoa maite zuten? Edo Foruak maite zituzten? Egiazkoa al da hirietako ideologia hau? Propaganda da? Zer gertatuko zen Fernandoren heriotzatik aurrera?

2. LEHEN GERRA KARLISTA

Milla zortzireun eta
ogei ta amairuan,
urte oroigarria
guretzat zegoan:
errege Fernando il da
San Migel ondoan,
ezagun zan jendea
zertara zegoan,
eztira bukatuko
lan abek beingoan.
(Zavala, 1992: 125)

A, nekazari on ta
langille prestuak!
O nola zaduzkaten
txit engañatuak!
Karlosek deretxoak
daduzka galduak,
ezperen entzun kontuz
oien zimenduak.

(Zavala, 1992: 114)

Bigarren partidako
lege onradua,
Felipe bosgarrenak
gaitzkiro kendua,
Don Karlos laugarrenak
ostera bildua,
Fernandok laga digu
ongi apaindua.

Bertso paper desberdinetatik ateratako bertso hauek, gerra karlisten hasierako gertakarien berri ematen digute. “Milla zortzirehun eta hogeita amairuan... errege Fernando il da” dio lehenak, “nekazari on ta langille prestuak... Karlosek deretxoak daduzka galduak” bigarrenak eta “lege onradua... Karlos laugarrenak ostera bildua, Fernandok laga digu ongi apaindua” hirugarrenak.

Lehen bertsoa Fernandoren heriotzaz ari da, baina, hurrengo biek Lehen Gerra Karlistaren azaleko zergatia erakusten digute. Bigarrenaren kasuan, egileak alde batetik Karlosek bere eskubideak (tronurakoak) galduak zituela adierazten digu baina urrunago doa, hori Karlosen jarraitzaileei esaten baitie eta argi dio nortzuk diren jarraitzaile horiek: nekazari

⁶ Beti ere, kontuan izan behar dugu, inoiz ez dagoela korriente absolutu bat eta hauek ere izango zutela haien aurkako herritarrik, nahiz eta ez izan karlistaldietan aurkituko ditugun pareko enfrentamendurik.

eta langileak. Beraz, bertsoaren egile liberalak, bandoen arteko banaketa bat ezagutzeko bidea erakusten digu.

Karlistak, batez ere, nekazariak, hirietako behe mailako jendea, nekazari nobleak eta kleroak ziren eta liberalak aldiz, lur jabe aristokratik eta burges merkatariak. Honek, klaseen arteko banaketa zegoela adierazten digu modu argi batean, baina zergatik burgesiaren eta langileriaren arteko bando diferentzia hau? Liberalentzat, interes ekonomikoak zituztenez, foruak babes bat izateaz gain, arazo bat ere bazirelako, izan ere, liberalen gehiengoak foruen bidez zituzten zerga eta armadarekiko pribilegioak mantendu nahi zituen arren, espainiar merkatu bateratuan nahi zuen mugitu eta, gainera, nekazaritzako nobleziak zuen ahalmen politikoa apurtu nahi zuen. Hauen ustez foruak, eurek eskatzen zituzten moldaketa txikiak eginik, absolutismoak onartu zituen moduan erregimen konstituzionalean ere aplikatu zitezkeen (Barruso et al, 2005: 44-45)⁷.

Herri bateko biztanle, bi bandoetan foru zale asko... non zegoen diferentzia? Zerk zeramatzan bata bestea hiltzera? Bazekiten zergatik zeuden borrokan? Liberalak, liberalismoaren olatuaren ideiak partekatzen al zituzten? Eta karlisten borrokarako adorea benetan al zen Karlosenganako maitasunetik eratorria?

Nire ustez, inork ez zekien ondo zergatik borrokatzen zuen, promesa batzuen atzetik zihoazen, haien interesak defendatzen, foruen altzoan “berdintasunean” bizi zen herri bat, maila nazionalean sortu zen ondorengotza eztabaida batek apurtu arte. Karlistak lehengo estatus edo tradizioa mantendu nahian eta liberalak aukera ekonomiko baten atzetik, boterean nor edo zein sistema jarriko zen oso kontuan izan gabe. Beraz, ekonomiak bereizten zien eta ekonomia horretatik eratortzen zen kokapen geografikoak (hiria eta landa, alegia).

2.1. Zumalakarregi

1834an, karlistek indar handia zuten jada eta liberalak hirietan biltzen hasi ziren (Barruso et al, 2005: 45). Baina nola? Nola lortu zezaketen landako biztanle batzuek, printzipioz ez zeudenak gerrarako oso prestatuak, liberalak hirietan sartuak egotea eta hiri hauek defendatzen jardutea? Karlistak, Fernando VII. arekin zegoen bake soziala defendatzen zuten argudioarekin ekiten zuten eta esan bezala, botere militar txiki eta, gainera, deskoordinatua zuten arren, oso erasotzaile arriskutsuak ziren, hainbat ezaugarriren ondorioz: Euskal Herria karlismoaren kokaleku indartsuena zelako, klase umil horretatik armada bat egitea lortu

⁷ Agian, baikorregiak izan zitezkeen “berdintasunerako” mugimenduak beraien pribilegioak mantenduko zituela pentsatzean.

zutelako (Barruso et al, 2005: 43-45) eta armada horretako jeneral eta estrategaren jakintzagatik, Zumalakarregiren jakintzagatik, alegia.

Jeneralaren presentzia, batez ere Bilboko setioaren hasieretan zein bezperetan izan zen nabariena eta setioa aztertzean ageriko zaigu berriro lan honetan. Ordea, korrante karlistaren buru bat zelarik, ondoko bertsoek karlistek beregan zuten ikuspegia eta ilusioaren bitartez Zumalakarregik piztu ziezaieken indarra erakutsiko digute.

Zumalakarregi da	Biba gure On Tomas
gure jenerala,	Zumalakarregi,
onek amaituko du	beste onelako bat
asitako lana;	ez baita agiri,
biotza zintzo dauka	atzera egiteko
fedearengana,	areriuari;
ez da inguratuko	isabeltarrak igesi
beltzik orrengana.	dijoazkiyo ari.

(Zavala, 1992: 133)

Bi bertso hauetan, argi ikusten da nor zen Zumalakarregi karlistentzat. “...gure generala... biotza zintzo dauka fedearengana” edo “...beste onelako bat ez baita agiri... isabeltarrak igesi dijoazkiyo ari” bezalako esaldiekin, bere gaineko esperantza edo karlisten fede kristaua, zein, Zumalakarregirengan gorpuzten duten⁸, ageri zaizkigu. Orokorrean, ikus daiteke ez direla edonori eginiko bi bertso, baizik eta garaipenera eta hortik etorriko den bakera eramango zituen pertsona miresgarriari pasioz eginak.

Baina, Lehen Gerra Karlistaren hasiera aztertzekotan bildu ditudan bertso horietara itzul gaitezen. Esan bezala, bigarren bertso horrek, Karlosek bere eskubideak galduak dituela dio, zergatik? Zer esan nahi du horrekin? Bada, hirugarren bertsoak argituko digu hori. Bertso horrek, lege ondratu batez egiten du hitz, Karlos IVak bildu eta Fernandok apaindu zuen lege batez, hau da, Lege Salikoaren oztopoak igaro zituen legeaz.

⁸ Esan daiteke, Zumalakarregi deskribatuz, karlista “on” bat nolakoa den adierazten dutela: fedea duena eta gerlari ona.

2.2. Lege Salikoa

Fernando hil baino lau urte lehenago, 1829an, bere bigarren emaztea izan zen Josefa Amalia hil zen (Canal, 2000: 51). Ordea, Fernandok ez zuen ondorengorik, hau da, une horretan hil bazen, Karlos izango zen erregetzarako hautagai bakarra, baina ez, Fernando berriz ezkondu zen, kasu honetan, bere iloba zen Maria Kristinarekin, ezkondu bezain laster, erregina haurdun zegoen berria zabaldu zelarik. Ordea, nahiz eta oraindik ez jakin, haurra emakumezkoa izango zen eta beraz, Lege Salikoa, 1713an Felipe V.ak indarrean sartu eta oraindik mantentzen zelarik, Fernandoren ondorengoa izango zen Isabel edo beste edozein emakume ezin izango zen erregina bihurtu (Canal, 2000: 52).

Baina, ez zen guztiz ezinezkoa Isabel Lege Salikoa tarteko erregetzara iristea eta Fernando VII.ak, beste oinordekorik izango ez zuela pentsatuz, ondorengotza ziurtatzeko edota bere emaztearen sabelean zegoen haurrak tronua hartzea nahi zuelako (zein sexutakoa zen kontuan izan gabe, alegia), Karlos IV.ak 1789. urtean onartu zuen arren, indarrean sartua izan ez zen “santzio pragmatikoa” delakoa⁹, berriz atera eta publikatu zuen, honek, Felipe V erregearen garaitik indarrean zegoen Lege Salikoa indargabetzen zuelarik. Horrela, oinordekotzan gizonezkoentzako erreserbatua zegoen preferentzia desagertzen zen eta Isabel II.a, jaio aurretik egin zen arren, umeak, mutil zein neska izan, tronua ziurtatua zuen (Canal, 2000: 52).

Santzio Pragmatiko horrek, nola ez, bai liberalen eta baita absolutisten artean hainbat zalantza sortu zituen: Erabaki zezakeen Fernando VII.ak hori, gorteen aprobaziorik gabe? Karlos Maria Isidro 1789 baino lehen jaioa izaki, lege horrek bere gain ere eragina izango ote zuen? Eta beti bezala, erantzun bat baino gehiago izan zituzten galdera horiek, alderdi bakoitzak, bere interesak defendatzen erantzuten baitzituen (Canal, 2000: 52).

Horrela, lege salikoak indarra galdu eta Isabel erregetzarako hautagai bihurtu zen jaiotzean, baina, absolutista askok ez zuten emakume bat erreginatzat onartuko, Karlos Maria Isidroren aukerara joz. Lehen Gerra Karlistarako testuingurua prest zegoen.

2.3. Hiriak gerran

Fernando VII.aren heriotzaren aurretik, Euskal Herriko bi hiritan eginiko bertsoak batu ditut. Bi hiri, erregearen etorreraz, printzipioz poztu egiten zirenak, baina, urte batzuk igarota,

⁹ Lege hau, Karlos IV.ak onartu arren, 1805eko “novissima recopilacionen” ez zen agertu (Canal, 2000: 52).

egoera guztiz desberdina zen, hiriak liberalek eta landak absolutistek kontrolatuz, eremu hauek, Espainiako Lehen Gerra Karlistaren epizentro bilakatu baitziren.

2.3.1. Donostia

Milla ta zortzireun ta oi ta amaseyian, maiatzeko illaren bostgarren goizian, batalla bat genduan Donosti aldian, Kristinuak gugana etorri nayian; goizian hainbat gizon etzan arratsian.	Pezetero ta urbano, arjelino ta ingles, gu arrapatutzera irten ziran ustez; aurrena zetorrena jo ta bota auspez, bigarrenkoa berriz ikaratu ta iges; gerrako legia dek gogorrena juez.	Neronek ere badet orduko erida, apuntatu ziraten oñaren erdira; nik neria artu ta bela erretira, gelditu gabetanik atzera begira; ondo kuratzen naute sendatzen ari da.
--	---	--

(Zavala, 1992: 219-222)

Bertso hauek, Donostian gertatutakoaren kontaera bat egiten digute. 1836. urteko maiatzaren 5eko goizean kokatzen gara, goiz horretan, karlistek liberalen eraso bat jasan zutela dio eta gerran, hainbat hildako izan zirela “...goizian hainbat gizon etzan arratsian” esaldiak adierazten digun moduan. Baina, nortzuk ziren liberal edo “kristino” horiek? Nondik zetozen? Bigarren bertsoak argitzen digu hori “... argelino ta ingles...” esatean¹⁰. Izan ere, Lehen Gerra Karlista espainiar gerra zibil bat izan zen arren, absolutismotik liberalismorako sistema aldaketak ez zuen espainiar interesen gaineko jomuga soila, mendebaldeko munduko sistema aldaketa bat zen eta hori dela eta, alderdi bakoitzak bere aliatu eta etsaiak izango zituen. Absolutista edo karlistek, Errusia, Austria eta Prusiaren laguntza eskaintza izan zuten eta liberalek aldiz, aliantza bat sortu zuten, Frantzia, Britainia Handia, Portugal eta Espainiaren artean (Bazan, 2006: 453). Kasu honetan, bertso hauek, ingelesen eta frantziarren Donostiarako iritsiera adierazten digute eta bertan lur hartzean karlisten aurka izan zuten gudua.

¹⁰ Bertso honen detaile bereziena, gudaz egin dakiguken kontakizunetatik urrunago doa, zergatik deitzen die frantsesei “arjelino”? Egileak, ziurrenik ez zuen izango Frantzia eta Aljeriaren arteko erlazioaz gaur egunean dugun ezagutza, egileak gauzak entzunez bere historia propioa egingo zuen, gainera, agian frantsesez (Donostian biziz, frontera hortxe baitzuen) entzungo zituen pasarteak eta “Frantzia, Aljeria, konkista, kolonia edo okupazioa” bezalako hitzak entzungo zituen. Posible ote da, bere pentsamenduetan historia aldrebes ulertu eta Aljeriak Frantzia hartu zuela pentsatzea? Edo bestela, intenzionalitate guztiarekin esan balu? Hurbilean daukaten gertaera baten aipua sartu nahi badu adarra jotzeko edo frantziar estatua inperialistatzat hartzeko? Posiblea ote da kritika bat izatea, hau da, estatu liberal baina inperialista baten izaera kontrajarria aipatu nahi izatea?

Ordea, "...aurrena zetorrena jo ta bota auspez, bigarrenkoa berriz ikaratu ta iges..." argi adierazten digu, kanpotik etorritako liberalen aliatuek ez zutela Donostian karlistak menperatzerik izan, galdu egingo zutelarik bertako karlisten aurkako gudua.

Azkenik, hirugarren bertsoak ez digu guduaren panorama global bat erakusten, pertsonala baizik. Lan honetan zehar bildu ditudan bertsoen gehiengoek, orokorrean pasarteak kontatzen dizkigute (Fernando VII. aren heriotza, adibidez, edo Zumalakarregi bezalako pertsonaien goraipamenak), baina kasu honetan, bizitza propioa kontatzen digu, Donostiako guduaren aritu zen karlista batek egin ditu bertsoak eta bere egoera da deskribatzen duena.

Bertso bat aztertzean ordea, kontuz ibili behar gara hau iturri gisa erabili nahi badugu, izan ere, bertso honek, esan berri dudana bezala, karlistak Aieteko (Donostia) guduaren garaile gisa jartzen ditu, ordea, horrek karlistek Donostia hartu zutela esan nahi du? Ez. 1900. urtean, Angel Piralak, Donostiako historiaren pasarteak bilduz Donostiako XIX. mendeko historiaren bilduma txiki bat egin zuen eta bertan, aztergai dugun gertaera hau aipatzen du.

Guda, aurreko urtetik, 1835. urtetik, dator, noiz, karlistek Donostia inguruan kokatuz lehen setio bat abiatu zuten, haien helburua, hiriko liberalak bandoz aldaraztea zelarik. Baina, egindako negoziazio ahaleginak huts egin zuenez, erasora jo zuten, Montenegro jeneralaren gidaritzapean. Donostia hartzea lortu ez zuten arren, ahalegina ez zen hor bukatuko.

Hurrengo urtean Sagastibeltzaren gidaritzapean itzuli ziren, Antiguako eliza suntsituz eta jaurtigaiak hirira botaz, horren aurrean, donostiarrek laguntza eskatu eta bertsoan aipaturiko Evans generala joan zelarik, berekin legio ingelesa atzetik zekarrela. Hasiera batean, liberalek, tropa ingelesekin setiadoreak urruntzea lortu zuten, Sagastibeltza bera ere hilez. Lau hilabete igaroko ziren, karlistak, galdu zuten lurraldea errekuiperatuz Donostiaraino itzuli ziren arte eta orduan, Aieteko gerra gertatu zen (Pirala, 2001: 47-51), gure bertsolari karlistak deskribatzen diguna. Bertsolariak, guda honen hasiera edo une konkretu bat kontatzen digu, non, karlistek liberalen gaineratik kokatu ziren. Baina, gerraren bukaeran, nahiz eta guda luzatu, "leweed" izeneko kanoi-hontzi ingelesa eta beste espainiar batzuk medio, karlistak Donostiatik urrundu egin zituzten (Pirala, 2001: 51).

Piralak biltzen duen historiatik hurbilago dago egun bereko beste bertso sorta bat, ez duena inondik inora ere aurreko bertsolari karlistaren hitzak berretzen eta gainera, kontrako ikuspuntu edo frontekoa dena, hau da, liberal batek egina.

Beti dakit esaten garbiro egiak, ez dira nekatzeko karlista nagiak; gaztelu bihurturik aldeko mendiak, egiñikan zeuzkaten txit obra aundiak	Despreziaturikan bala ta metrallak, aurrera sartu giñan nagusi ta mutillak; ez dira irabazten alako batallak, izan gabetanikan eritu ta illak.	Artu duan ezkeron ainbeste bat neke, gure erantzuera ark merezi luke; nere eskuan gauza baldin balegoke, egingo nuke Evans Aieteko Duke
--	---	--

(Zavala, 1992: 212-215)

Guda hartako galtzaileen paperetik egindako hiru bertso al dira honakoak? Argi dago ezetz eta aurreko bertsoen egileak ez digula gerra osoaren historia kontatzen, guda konkretu batekoa baizik (ziurrenik lehen talkakoa). Hala ere, badira aurreko bertsoarekiko zenbait lotura nabarmen. Izan ere, lehenak heriotza kopurua edo beraien indarraren goraiamena egiten duen bitartean, honakoak ere liberalek izandako heriotzak aipatzen ditu "... ez dira irabazten alako batallak, izan gabetanikan eritu ta illak" eta aldi berean, karlistek gerra horretan izandako estrategia kontatzen digu lehen bertsoan "...gaztelu bihurturik aldeko mendiak, egiñikan zeuzkaten txit obra handiak". Azkenik, hirugarren bertsoa, liberalen eta ingelesen arteko laguntza erakusten digulako aukeratu dut, bertan egileak, Evans jeneral ingelesari bere esker ona adierazten diolako.

Galdu arren, karlistek, hiria hartzeko beraien helburuarekin jarraituko zuten eta irailean berriz itzuliko ziren saiaketa horretara, baina saiakera hau, oso arin bukatu zen, izan ere, karlisten atentzio nagusia, une horretan Bilboko setioan zegoen (Pirala, 2001: 52).

2.3.2. *Bilboko setioa*

Liberalismoa eta absolutismoa, Isabel eta Karlos... Donostiaren kasuarekin ikusi dugun bezala, Gerra Karlista errealitate bat zen eta euskal landako biztanleek, karlismoaren lemapean, indar handia hartu zuten Euskal Herrian, zein, aldi berean karlismoaren kokaleku garrantzitsuena zen Lehen Gerra Karlistan. Kokaleku hori indartzekotan gertatu zen Bilboko setioa.

Landako populazio horren loriaren zergatia nagusietako bat, lehen aipatu dudan jenerala, Zumalakarregi, zen. Zumalakarregik, alde batetik gerrarako adorea piztu eta zabaldu zuen herri karlistarengan eta bestaldetik, estrategia militar oso egokiak erabili zituen lehen fase

guzti horretan zehar, jada, indartuak zeudenean, kolpe nagusia eman nahi zuelarik: Madril hartzea. Ordea, Madrilera joateko prest zegoela¹¹, Karlosek Bilbo erasotu eta hartzeko agindu zion, Karlosen hitzak betetzean, gerran hil zelarik jenerala, 1835eko ekainaren 24an (Barruso et al, 2005: 46).

Zumalakarregi, Lehen Gerra Karlistaren hasierarekin batera hasi zen Karlosen interesak defendatzen zituen bandoaren jeneral karguan, 1833. urteko azaroan izan baitzen armada nafarreko komandante izendatua eta hurrengo hilabetean jada, euskal lau lurraldeetako armaden jeneral kargua lortuko zuen, bere loriara eta Bilboko heriotzara eramanago zuen kargua (Bazan, 2006: 452).

Baina, Karlosek emandako agindura itzuliz, zergatik? Harturiko erabaki horrek, zalantzak sortzen ditu, izan ere, Madril hartzea influentzia absolutuko ekintza bat izango zen, beraz, zergatik gelditu zuen Zumalakarregiren espedizioa? Zein interes zuen Karlosek Bilbon? Egia da, agian Madril garrantzitsuagoa zela, baina, karlistek ez zuten izen handiko kokapenik (hiririk) beraien kontrolpean eta erregeak, errekonozimendu internazional hori nahi zuen Madrilera abiatu aurretik (Barruso et al, 2005: 46). Donostia edo Bilbo bezalako hiriguneak izan ziren hain zuzen, Euskal Herrian karlistek okupatu ezin izan zituzten eremuak.

Igaz generala ta	Egin zigutelako	Itzegin zioneko
aurten soldaduak	guri traizio,	Estellan Valdes`i,
sei milla ta geiago	igaz artu zituzten	gure jeneral ori
dituzte galduak;	zenbait guarnizio;	ark zuan erosi;
gañerako guztiak	Karlosek Ellioti	ordutanikan ziran
txit daude aulduak,	txit asko zor dio,	gure gaitzak asi,
gerra irabazteko	guztia gertatu zan	ez degu oraindano
oiek bai moduak!.	hau zala medio.	gauz onik ekusi.

(Zavala, 1992: 229-230).

1836. urteko bertso sorta batetik ateratako hiru bertso dira honakoak, oso esanguratsuak. Zumalakarregi hil osteko urtean kokatzen gara eta dirudienez, soldadu karlistak ere modu bizkor batean ari dira hiltzen Bilboko inguruetan “Iaz generala ta aurten soldaduak sei milla ta gehiago dituzte galduak...”. Beraz, argi ikusten da honakoak alderdi liberaleko pertsona batek eginiko bertsoak direla, haien garaipenerako bidez harro agertzen delako. Ordea, Donostian

¹¹ 30000 soldadu zituen bere ondoan Madrilera espedizioari ekiteko (Barruso et al, 2005: 46).

ikusi dugun bezala, gerran momentu onak eta txarrak igaro behar izan zituzten bando biek eta bertso hauen egileak, Bilboko setio karlistan zehar izandako liberalen une txar bat aipatzen digu, bere ustetan, liberalekiko traizioa izan zen momentu bat.

Ingelesak, liberalen aldekoak zirela ikusi dugun arren, kasu honetan, “Elliot” agertzen da, “...Karlosek Elliotti txit asko zor dio...” karlisten bando-lagun ikusten du beraz egileak ingelesa eta ideia, hirugarren bertsoan azaltzen digu, Estellan Valdes erosi egin omen zuela eta. Elliot, Ingalaterrak bidali zuen Bilbora, alderdi biek presoak fusilatu egiten zituztelako eta basakeria hori desagerrarazteko asmotan. Honek, liberalen buru zen Valdeseekin eta karlisten buru zen Zumalakarregirekin hitz egingo zuen, 1835eko apirilaren 27an “Ellioten konbentzioa” delakoa sinatzeko, basakeria desagerrarazi eta presoak trukaketa eta tratuetarako erabiltzeko (Zavala, 1992: 236). Dirudenez, akordio horrekin traizionatuak sentitu ziren liberal batzuk.

Donostian gertatu zen bezala, Bilbon ere galtzaile izan zirenez, karlisten indarrak zeharo behera egin zuen Bilboko gertaeren ondoren, horrela, hurrengo espedizioek, adibidez, Gomez jeneralak Andaluziara eginak edo aldiz, Karlosek berak, garai batean Zumalakarregik nahi zuen bezala, Madrilera eginek, ez zuten garai bateko loria ekarri (Barruso et al, 2005: 46). Indargabetze prozesu honetan gainera, oso desberdina zen liberalen egoera, aldi berean indartzen joan baitziren, hainbat kausaren ondorioz:

Fernando VII.a hil eta liberalek Isabelen alde egin zutela ondo dakigu, baina azken batean, Isabel bera ere erregina bat zen eta bere aldekoak kontra ez jartzeko, liberalen hainbat presiori men egin behar izan zien Maria Kristina erregeordeak, adibidez, Mendizabali deitzea, zein, desamortizazio prozesuagatik ezaguna den arren, karlisten aurkako gerran ere oso garrantzitsua izan zen. Mendizabal, 1834. urtetik aritu zen liberalentzat lanean eta bere ekinak, batez ere Bilboko gertaeren ondoen islatuko zen, bere neurriek, soldadu liberal ondo prestatuen kopurua igotzea ekarriko baitzuten.

Armada liberalak une honetan gehiago indartzearen beste kausa, erregeorde aldaketa izan zen, gerrarako Maria Kristina baino prestatuago zegoen Esparterok boterea hartuz. (Barruso et al, 2005: 46-47)

Nekea, beldurra, amets apurruak... karlismoa indargabetua zegoen, eta honek, euskal karlismoaren betiko galderara garamatza: axola zitzaien Karlos karlistei? Foruengatik al zen borroka? Borroka foruengatik egiten bazuten eta lehen esan bezala, euskal liberalek foruak mantendu nahi bazituzten (beti ere aldaketa batzuekin, noski), zergatik jarraitu zuten galtzen

zeuden gerran? Galdera edo zalantza horren aurrean karlismoaren jeneral garrantzitsuenetako bat agertzen zaigu: Maroto.

Egoera honetan, karlisten arteko lehen banaketak hasi ziren, bake paktatua nahi zutenen eta Karlos errege izan arte jarraitu nahi zutenen artean. Marotok, bakea nahi zuen eta bere nahi hori bete zedin karlisten arteko “gerra” bat egiteko prest agertu zen. Izan ere, bakearen kontra zeuden Guergue, Garcia eta Sanz jeneral karlistak fusilatu zituen Lizarran 1839ko urtarrilaren 18an (Barruso et al, 2005: 47). Gertakari honek, Bigarren Gerra Karlistaren hasieran “Xenpelar” bertsolariak egindako “Iya guriak egin du” bertso sorta dakarkit burura, horrela baitzioten bertsoetako batzuek:

Ez naiz ni gerraren zale,	Gaitzak gerade umiltzen	Umildadean alkarri
baizik pakearen alde;	eta pakean unitzen;	errespetua ekarri;
zeñek nai duen galde,	ez da errez ibilltzen	lege eder bat jarri
berari tira dale,	anaiak alkar iltzen,	bizi gaitezen garbi;
bala bat sartu buruan,	zer dan entenditu gabe;	ori deseo nuke nik,
aspertuko da orduan!	ortan galduko gerade!	ixuri gabe odolik!

(Zavala, 1969: 410-411)

Lehen Gerra Karlistaren bukaera eta bigarrenaren hasierako egoeren antzekotasun garbia erakusten dizkigute hiru bertso hauek. Lehenengoak, esan daiteke ia-ia Marotok 1839an egin zituen fusilamenduei erreferentzia egiten dietela, izan ere, bakearen bidean indarra erabiltzeko oihartzun bat da gerra nahi duenari “...bala bat sartu buruan, aspertuko da orduan!” esaldia. Bigarren bertsoak aldiz, lehenago planteatu dudan galdera erantzuten duela esan daiteke, hau da, errege bat aukeratzeko gerra zen euskaldunentzat? Edo foruen gerra? “...anaiak elkar iltzen, zer dan entenditu gabe; ortan galduko gerade!” esaten du Xenpelarrek, hau da, euskaldunek ez dakitela zergatik dauden borrokan. Azkenik, hirugarren bertsoan, gerraren benetako kausa eta liberal zein karlista askoren desioa transmititzen digu “...lege eder bat jarri...izuri gabe odolik!”, hau da, foruak mantendu eta bakea egin dadila.

Marotorekin jarraituz, bere arerioak fusilatu eta gero, Karlosen baimenik gabe Espartero erregeordearekin batu zen, Bergarako akordioa negoziatzen hasteko (Barruso et al, 2005: 47).

2.4. Bergarako akordioa

Obra maravillosa	La constitucion viva	El absoluto Carlos,
Bergaran egiña,	Españaikoa,	beingoan lur joa,
el tratado más sabio,	viva Isabel segunda	perseguido de cerca
oberik eziña;	biotz gurekoa,	igesi dijoa;
desenlace felice	con Maria Cristina	por veredas y breñas
esan ez adiña,	ama egiazkoa,	galdu, nekosoia,
alabanza ninguna	y la paz para todos	entra por fin en Francia
ez da zure diña.	zori onekoa.	ez guztiz jasoia.

(Zavala, 1992: 372-375)

Bergarako akordioa edo besarkada, 1839an izan zen eta Lehen Gerra Karlistari bukaera eman zitzaion unea da. Kasu honetan ere, bertsoak gertaeren testigu dira eta ondoko ideiak helarazten dizkigute: "...el tratado mas sabio oberik eziña..", "...viva Isabel segunda...y la paz para todos zori onekoa" edo "El absoluto Carlos... igesi dijoa... entra por fin en Francia...".

Horrela, bertso hauek, bakearen premia erakusten digute, Bergarakoa baino hoberik ezin dela izan adieraziz, aldi berean, Isabelenganako maitasuna adierazten dute eta horrek ondorengo galderara narama: hiru bertso hauek irakurrita argi ikus daiteke liberal batek idatziak direla, Isabelen alde eta Karlosten kontra ageri delako egilea, baina horrela al da? Edo egilea bakearen alde dago eta Isabel goraiatzeko du bake horretarako bidea delako? "...y la paz para todos zori onekoa", karlista bat ere izan daiteke?

Egia da, azken urteak gerran pasa dituen lurralde batek, bakea behar duela eta gerra egiten dutenak militarrek dira, beraz, militarren akordioak bukatuko luke gerra. Hau horrela, Bergarako akordio militar bat izan zen (Bazan, 2006: 454), Marotok Karlosten baimenik gabe akordioa negoziatzea (Barruso et al, 2005: 47), hau da, jeneral militarrek, interes politikoak (erregetza) ahaztuta negoziatzeak ere horren izaera militarra erakusten duelarik. Baina, izaera militar horrek, nola ez, zenbait sektore traizionatuak sentitzea ekarriko zuen, adibidez kleroa, zeintzuk, Bergarako akordioaren barnean erregimen zaharraren amaiera ikusten zuten ez zeuden bat ere ados Marotorekin (Bazan, 2006: 454).

Lehen Gerra Karlistako absolutisten burua den Karlos Maria Isidro, galtzailearen paperetik egin behar izan zuena adierazten digu hirugarren bertsoak: Frantziara joan zen ihesean.

Bergarako akordioko tratuetan, Karlos alde batean hutsi zuten bere jarraitzaile ziren askok eta Isabel erreginari, beraien zintzotasuna adierazi zioten, horrela, agintari eta jeneral karlista horiek, armada liberalean onartu zituztelarik. Geografikoki banatu ezkerre, batailoi bizkaitar eta gipuzkoarrek onartu egin zuten Bergarako akordioko tratua eta nafarrak, Karlos errege gaiarekin joan ziren erbestera (Barruso et al, 2005: 47).

Azkenik, aipatu izan dut, hein handi batean Euskal Herrian karlista eta liberalen arteko diferentzia nagusia, lehenengoaren foruen defentsaren interesean eta bigarrenengoaren Espainia mailako merkataritzaren interesean (aduanak kostaldera eramanez) egon zela. Orduan, zer gertatu zen Bergarako akordioaren ondoren euskal Foruekin? Foruak, indarrean jarraituko zuten, baina, “monarkiaren batasuna mindu gabe” beraz, monarkiaren interes horiek medio, aldaketak egingo zitzaizkien (Bazan, 2006: 454). Esan daiteke euskal burgesia liberalak bere helburua lortu zuela?

3. EUSKAL LANDA: FORUZALEA EDO KARLISTA?

Lanean zehar, nire buruarentzat edo idatzita, hainbat aldiz egin ditudan galderak dira honakoak: zein interes zuten euskal karlistek Karlosekiko? Foruen ondoriozkoa al zen beraien interesa? Nire lanaren testuingurua ulertzeko, galdera garrantzitsuenak direla uste dut, alde batetik bertsoek horrela erakusten digutelako eta bestetik, kasik gerrateari ematen zaion izena bera ere zalantzan jarri dezaketelako. Herritarrek foruak babestu nahi zituztela argi dago eta aurrekarietan ikusi dugun bezala, ondo zekiten liberalen gobernuaren foruen kalterako zela. Bide horretatik jarraituz, Cadizeko konstituzioari jarritako bertsoetan honako esaldia ikusi dugu “...agur gure forubak, agur noblezia, koldarturik balego emengo jentia” (Zavala, 1992: 27). Lehen esan bezala, modu argi baten foruen eta haien babesean egindako gerra baten ideiak lotzen ditu esaldi horrek.

Zerk pentsarazi dakiguke gerra egiteko zergatia foruak izan zirela? Foruak, kontsumitzaileen paperetik zenbait abantaila zituzten, zeintzuk, beti garrantzitsuak izan arren, gerra garaian garrantzitsuago bihurtzen ziren. Horregatik, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa, “exentas” bezala izan ziren ezagutuak foruak lortu zituztenetik, bakoitzarena desberdina zen arren, antzeko foru ogasunak zituztelarik. Horri esker, ogasun nazionalean gutxi parte hartzen zuten hirurek, adibidez, XIX. mendearen hasieran, Bizkaiak, 22.000 erreale ordaintzen zituen eta ziurrenik, Fernando VII.aren heriotzarekin horiek ere ez, 1864ean Joaquin Barroeta

Aldamarrek senatuan esan zuenaren arabera (Aguirreazkuenaga eta Ortiz De Orruño, 1988: 70-71). Baina, bat-batean herriaren zati bat, “aberatsenak” gisa izendatuak izan daitezkeenak, ez dut esango foruen kontra, baina, hauen erreforma baten alde, aduanak kostaldera eramatearen alde, jarri ziren. Zer ekarriko zien merkatari eta eta lur-jabeen jarrera horrek nekazari eta langile xumeenei? Bada, kintak ordaintzea, merkatu txarragoetan aritu beharra eta prezioen izugarrizko gorakada (Bazan, 2006: 451). Beraz, klaseen arteko banaketa bat eta hortik eratorritako interes ekonomikoak ditugu jada, foruak ekonomiaren babesle moduan kokatuz. Kasu honetan, hau balitz kausa bakarra euskal landa karlista baino foruzalea ez ote litzateke? Baina jarraitu dezagun.

Bertsoen bidez ere egileen pentsamendua guztiz ondo ezagutzea ezinezkoa den arren, bai bertsoek eta baita ikerketa gehienek ere, euskal karlista baten buruan botere triangelu bat erakusten digute: erregea - foruak - jainkoa (Barruso et al, 2005: 44). Batak bestea dakar, ez legoke erregerik ezta forurik jainkorik gabe, eta ez legoke forurik erregerik gabe? Zumalakarregiri eginiko bertsoetan, argi erakusten dugu, fedea karlistengan duen garrantzia “...biotza zintzo dauka fedearengana...” (Zavala, 1992: 133) eta sinestunak diren heinean, nolabaiteko zentzua du erregearen jarraitzaile izateak ere. Ordea, zergatik defendatzen dute Karlos, ideia horiengatik edo foruengatik? Eta, foruengatik dela pentsatuko bagenu, zergatik babestu Karlos, zeinentzat, gerra karlistak printzipioz ez zuenez foruekiko erlaziorik, Euskal Herrian zuen indarrak ohartu eta 1837an “gaceta oficial” aldizkarian foruen defentsako artikulua idatzi ziren arte ez bazuen hauen inguruko erabakirik hartu? (Bazan, 2006: 451) Bada, bi arrazoi egon daitezke: Cadizeko konstituzioa indarrean sartu zenetik bazeukatela alderdi liberalaren foruen kontrako jarreraren berri, Karlos automatikoki beraien kandidatu bihurtuz eta bestalde, horren fededunak izanik, euskal kleroa, ideia liberal edo iraultzaileen aurka eta Erregimen Zaharraren alde kokatu zela, Konbentzioko Gerran, Independentzia gerran, Hirurteko Liberalean eta batez ere Gerra Karlistetan. (Bazan, 2006: 442). Beraz, arrazoi erlijioso bat ere izan daiteke foruen defentsa edo jarrera karlista hori.

Geratuko litzatekeen beste aukera, printzipioz logikoena edo sinpleena da: Karlos liberalismoaren aurrean Erregimen Zaharra defendatzeko sinbolo izateagatik soilik defendatzea, besterik gabe, bere ondorengotza defendatzea, foruekin ahaztuta. Dena dela, denetarik izango zen garaiko Euskal Herrian, batzuk Karlos bera mirestearen izango ziren karlista, beste asko foruak mantentzeko bide moduan ikusten zutelako, beste batzuk elizan horrela ikasi dutelako eta baita etxean jarrera hori jaso dutelako ere, denetarik izango zen. Ordea, begira ditzagun hurrengo bertsoak:

Adiskide maiteak,
ona klaro gauza:
bakarrikan fueroak
dira gure kausa;
aiek defenditzeko
deretxua dauka
probintziko semiak,
ori eziñ uka.

(Zavala, 1992: 333)

Baita bere eskerrak
errege jaunari,
Karlos bostgarrengo ta
zuben burubari;
bera izan dozube
guztijan laguna,
zubekaz igarorik
gaba ta eguna.

(Zavala, 1992: 300)

Bi bertso hauetan bi jarrera karlista desberdin ikusten ditugun arren, bertsoak bilatzeko prozesua oso desberdina da. Izan ere, oso erraza da “kristino” edo “Isabelinoak” kritikatzeko dituen bertso bat aurkitzea eta modu berean foruak edo Zumalakarregi bezalako gidari bat lausengatzen duena. Ordea, ez da horren erraza Karlosen aldeko bertsoen bat aurkitzea, liberalek kontra egiten dioten bitartean, karlistek beste gai batzuk (Foruak, Zumalakarregi, gerra deskribapenak...) Karlos baino nahiago izaten dituztelako. Gainera, bertso honetan ikus daitekeen moduan, Karlos aipatu arren, ez dute bere gain askorik sakontzen inoiz, interes falta izan daiteke? Presente dagoen elementu bat da baina, garrantzia handirik ez diotena ematen?

4. BERTSOA

Bertsoak, hainbat motatakoak izan daitezke: irrizkoak, sentimenduzkoak, tragikoak, kontakizunezkoak... azken hau da gehien batean gertaeren azalpena egingo diguna, nahiz eta gainerako aldaerak ere informazio iturri izan daitezkeen eta lan honetan zehar beste horiek ere erabili ditudan, ez direnak kontakizunezkoak bezain objektiboak izango (ez dugu pentsatu behar kontakizunezkoak ere oso objektiboak direnik, noski). Baina, bertsoa bere osotasunean iturri bat da, egilearen irudi izan daitekeena.

Nire lanean garaia ondo ikusten dela deritzot, bertso baten barruan dauden esaldiek gertakarietara garamatzatelarik: Fernando VII.aren heriotza, Bergarako akordioak bakea ekarri diela, gerrak dakarren heriotza... baina kontakizun guzti horien atzean nor dago? Zein da egilearen helburua?

4.1. Egileak

Gaur egunean, bertsoez askorik ez dakienak ere badakizki zenbait sortzailereren izenak: Maialen Lujanbio, Andoni Egaña edo Amets Arzallus izan daitezke ezagunenak, agian. Baina, nire lanean erabili ditudan bertsoen egileak nortzuk dira? Antonio Zavalaren “Karliten leenengo gerrateko bertsoak” liburua da gehien bat bertsoak lortzeko iturri gisa erabili dudana eta bertan, zenbait egile aipatzen dituen arren¹², gehienak sinatu gabekoak dira eta esaten duena irakurriz, egilea liberala edo karlista den antzeman dezakegu, kasu askotan. Ildo horretatik jarraituz, egileen izaera horrek harritu nau, izan ere, bertso asko karlistenak izatea espero nuen, bertsoa gaur egunean ere oraindik baserri munduko fenomeno bat moduan ulertzen dugulako sarritan eta denboran atzera eginez, lehen sortzaile handiak ere, Txirrita, Lazkao Txiki, Pernando Amezketarra, Fernando Aire... baserri mundu horretan kokatzen dira, hau da, karlisten eremua den lurralde horretan. Gainera, nahiz eta ez duen horrela izan beharrik, karlistak euskalduntzat, “gure foruak” defendatzen eta liberalak espainiartzat edo behintzat euskal kulturarekin horren lotuak ez dauden taldetzat hartzen ditugu. Baina ez! Gehienak, liberalek eginak dira. Baina zergatik? Zein diferentzia dute? Alde batetik bertsoa propaganda moduan erabiltzeko aukera dago eta bertsoa landa eremuko baldin bada, propaganda hori landa guneeetara helarazteko modu on bat litzateke eta bestalde, alfabetizazio tasaren auzia dugu, XIX. mendearen lehen erdialdeko daturik ez dagoen arren 1877. urtean oraindik nahiko baxua zena¹³.

Aztergai ditugun egile hauetako asko ezezagunak diren arren, garai artako bertsolari batzuen izenak oraindik ere presente dira gaur eguneko bertso-munduan, asko ia-ia mito direlarik. Garai honen ingurukoak dira Pernando Amezketarra (1764-1823)¹⁴, Bizenta Mogel (1782-1854), Pedro Mari Otaño (1803-1883), Piarres Topet “Etxahun” (1786-1862) edo Iparragirre (1820-1881)¹⁵, beste ezezagun askoren artean. Gainera, garai hura deskribatu edo beraien ideien gainean bertsoak sortu baina askoz gehiago egin zuten, kasu batzuetan, gerran militarki parte hartzeraino, adibidez, Iparragirrek.

Iparragirre, euskal sorkuntzan dugun pertsonaia nagusietako bat da, bere hainbat kantu gaur egunean oso ezagunak baitira, adibidez, Gernikako arbolari eginikoa. Pertsonaia hau, oso presente izan zen Lehen Gerra Karlistan. Izan ere, bere familiaren beharrek eraginik, Madrilera

¹² Adibidez, Jose Vicente Echagaray (Zavala, 1992: 375) edo Jose Inazio Arzak (Zavala, 1992: 125).

¹³ 1877. urtean, %45,6koa zen Euskal Herriko alfabetatze tasa eta landa eremuan %16-24koa soilik zen, Bilbo bezalako hiriburu batean %62koa zen bitartean (Gonzalez, Hernando eta Urrutikoetxea, 2018: 76-77). Datu hauek, 1877koak dira, beraz 30eko hamarkadan nahiko txikiagoak izan zitezkeen.

¹⁴ Gerra karlisten aurrekariaren garaian hil zen Pernando, baina, oso pertsonaia garrantzitsua da bertsoaren historian eta nola ez, hurrengo urteetako bertsolarietan eragingo zuen.

¹⁵ Bertsozale.eus. Link-a: <https://bdb.bertsozale.eus/web/haitzondo/bilaketa>. Data: 2019/02/15.

joan zen bizitzera eta han bizi eta ikasten zuen gerraren hasieran. Orduan, 1834. urtean, bere etxetik alde egin eta Euskal Herrira itzuli zen, bertan, Gipuzkoako batailoi karlista batean soldadu gisa sartzeko, 13-14 urte soilik zituenean. Bere Karlosekiko hurbiltasuna bi alditan nabaritu zen batez ere: 1835ean, Arrigorriagako guduan zauritu ondoren Karlosen zaindari bilakatu zenean eta 1839an, Bergarako akordioa onartu ez zuen karlistetako bat izan eta erregegaiarekin Frantziara ihes egin zuenean.

Lehen gerra karlista horretan zehar, soldadu zelarik sortu zen gaur egunean ezagutzen den Iparragirre, gerra garaian hasi baitzen gitarra jotzen, kantari eta baita bertsotan ere¹⁶.

Gazte gaztedanikan
erritik kanpora
estranjeri aldean
pasa det denbora.
Errialde guztietan
toki onak badira,
baina biotzak dio
«Zoaz Euskalerrira»

(Arana et al, 1992: 345)

Jauna begira zure semeak
Il naian bata bestea
Emen iguzu lengo legeak
Izan dezagun pakea
Gerra dakigu dala infernua
Bada anaaien artean
Betor gugana zure erreinua
Arbolarekin batean.

(Arana et al, 1992: 399)

Azaldu berri dudan Iparragirrerren bizitza oso ondo azaltzen dute bi bertso hauek: lehenengoa, oso gazte zela, Karlosekin batera Euskal Herritik joan zen bezala, bizitza gehiena erbestean zen pertsonaren penak dira eta bigarreanean, bere karlismo foru zarela erakusten digu. Kasu honek, aurreko atalean azaldu dudan euskaldun foruzale edo karlistaren arteko eztabaida dakarkit berriro aurrera. Iparragirrerren kasuan bien arteko batasun bat da; bere bizitzak argi erakusten du bere karlismoa eta bertsoek aldiz, bere foruen aldeko jarrera.

4.2. Kontakizuna edo propaganda: Non dago muga?

“Ideia nahiz produktu bat jende artean ezagutarazi eta hedatzeko egiten den lehia” (Aurrekoetxea et al, 1986: 397). Propagandaren definizio hori aintzat hartuta, lanean erabili ditudan bertsoak kontakizunak dira, hau da, ideia edo pasarten dokumentazioa, edota propaganda hutsa? Iturri historiko gisa zein balore dute bertso hauek?

¹⁶ Bertsozale. eus Link-a: <https://bdb.bertsozale.eus/es/web/haitzondo/view/1030-iparragirre> Data: 2019/03/28

Bertso guzti hauek, bi garai dituzte, alde batetik oraina, nik erabili ditudan garaia, eta ikus daitekeen moduan, iturri moduan erabili ditut hortik kontakizun bat osatzeko. Ordea, lehen mailako iturriak izaki, bigarren garai bat dute: egin ziren garaia, gerra garaia. Pasarte biletaz edota ideia batzuen propagandaz ari gara bertso hauek Lehen Gerra Karlistaren testuinguruan aipatzean? Ideia hori aztertzeko, pertsonaia egokia iruditu zait Gaspar de Jauregi, Bilboko setioan liberalen buruzagietako bat izan zena. Hori sorpresa buruzagi batek eginiko bertsoak aurkitzean¹⁷!.

Don Gaspar de Jauregi
orobat artzaiak
itzegiten dizute,
euskaldun anaiak;
entzun bada arretaz
nere ots ta deiak,
ez dakar gauza onik
seta edo leiak
(Zavala, 1992: 127)

Zuentzat dira bada
nire abisoak,
zeren engañaturik
zaudeten gaixoak;
atozte utzirikan
mendi ta basoak,
nik zabalik daduzkat
zuentzat besoak.
(Zavala, 1992: 128)

Batzuetan itxasoz,
bestean legorrez,
Karlos datorkiela
oi daude deadarrez;
ejerzitu andiak
zaldiz eta oñez,
beti bidean bañan,
iñoiz iritxi ez.
(Zavala, 1992: 128)

Karlistei bideratzen dizkie bere hitzak Gaspar de Jauregik eta maite balitu bezala beraiengana urreratu eta gerra amaitzeko esaten die, haiek hartzeko prest omen dagoela “...zabalik daduzkat zuentzat besoak” eta hori argudiatzeko, karlisten buruak, Karlosek, bere esanak ez dituela betetzen dio “...ejerzitu handiak... beti bidean bañan iñoiz iritsi ez”. Kasu honetan, argi dago iragarki bat dela, baina, bestee? Zer dute kontakizunetik eta zer iragarki interesatutik?

Cadizeko konstituziotik hasita Bergarako akordiora arteko zenbait bertso bildu ditut nire lanean eta egileen atalean esan dudan moduan, liberalen bertso asko propaganda iruditu zaizkit. Izan ere, alde batetik liberalismo eta absolutismoaren arteko lehia lehenagotik zetorren arren, lehen bertso liberalak ez dira Gerra Karlista hasi bitartean agertzen, aurrekarietako bertso guztiak absolutistak baitira. Beraz, Karlismoa Euskal Herrian indartuta zegoenez, hauengana iristeko propaganda bat izan zatekeen? Beste alde batetik, bertsoak aztertu ere egin ditzakegu eta labur esateko, iruditzen zait karlistenak beraien egoera propioaz, beraien jeneralez... ari direla, liberalak, karlistenganako aipuren bat egiten duten bitartean: “A, nekazari on ta langille prestuak! O nola zaduzkaten txit engañatuak!...” (Zavala, 1992: 114) edo, “...sei milla ta

¹⁷ Baikorregia da berak egin zituela pentsatzea, baina bere izenean jarriak daude.

gehiago dituzte galduak; gañerako guztiak txit daude aulduak, gerra irabazteko oiek bai moduak!.” (Zavala, 1992: 229). Dena dela, badaude dirudienez inolako interes propagandistikorik ez daukaten bertso liberalak, adibidez, Aieteko gerraren testuinguruan aipatuak.

Liberalek karlistekiko bertso bidezko propaganda egiteak eta karlistek liberalekiko ez egiteak (dirudienez), ez du esan nahi karlistek beraiek ere beraien bandokideei antzerako helburu ideologikoak zituzten bertsoak ez zizkietenik idazten, horren adibide dira esaldi hauek: “Zumalakarregi da gure jenerala...” (Zavala, 1992: 133) edo, “Adiskide maiteak, ona klaro gauza: bakarrikan fueroak dira gure kausa...” (Zavala, 1992: 333). Beraz, badirudi bertso bidezko propaganda hori existitu zitekeela eta alderdi biek, liberalak zein karlistak, erabiltzen zutela, ordea, bitxikeria hartzailearen izaeran legoke, biek ere karlistengana iritsi nahi dutelako bertso horien bidez.

Kasu askotan, lanean zehar erabili ditudan bertso hauek eta beraien garaikideak, iragarki bihurtuko ziren nahita edo nahigabe. Ikusi dugun bezala, funtzio horretarako erabili izan zirela pentsatzea ez litzateke zorakeria guztiz handia izango, gainera, horren adibide da, iritsi publikoa alde izateko helburuarekin, liberal zein karlistek, beraien ekintzen zergatia justifikatzen zituzten liburu eta idazkiak zabaldu zituztela, batez ere, oinordekotza eta politikaren atalak jorratuz (Bullon, 2002: 74). Beraz, propaganda bazen aztergai dugun garai honetako testuinguruan, galdera, bertsoa horretarako baliabide bat ote zen delarik.

5. KONKLUSIOAK

Bertso batzuk bildu eta beraien arteko elkar lotura eginik Lehen Gerra Karlistaren kontakizun bat egiten saiatu naiz nire lan honetan. Helburua, aztergai izan dudan garaiko nire kezkak idatzi eta lantzeaz gain, bertsoak, Euskal Herriko altxor kultural nagusietako batek izan dezakeen balore historikoa nabarmentzea izan da, izan ere, bertsolariak beti kantatzen du bere inguruko testuinguruari lotuta, oso gutxitan izaten da ekin literario edo fantastiko bat, beraz, beti iruditu zait, iraganeko bertsoak batzerakoan, lehen mailako iturri oso baliagarriak biltzen ari garela. Hori esanik, lanaren sarreran, galdera batzuk planteatu ditut eta jada, horien erantzunak idazteko gai sentitzen naiz: Zer erakusten digute bertso horiek Lehen Gerra Karlistaz? Nork idazten zituen? Zein funtzio zeukaten?

Bertsoek, Lehen Gerra Karlistako kontakizun bat egiten digute, kasu batzuetan objektiboagoa eta besteetan subjektiboagoa. Gainera, erakutsi dudan moduan, garai hartako zenbait bertso batzea, kontakizun luze bat egiteko moduko baliabide bat da, baina zein da arazoa? Kontuan eduki behar dugu, bertsolaria neurri baten barruan (zortziko handian, hamarreko txikian...) ari zaigula esan nahi duena kontatzen, beraz, oso maila handiko sortzaile bat ez bada, askotan datu interesgarriak galdu daitezke, gure hitzaldia beste mota batzuetako iturriekin bete behar dugularik. Bestalde, mamira jotzen badugu, bertsoek, batez ere, alderdi karlistaren bizitza erakusten digute (haien agintariak, helburuak, ideiak, gerrako pasarteak...) izan ere, liberalek egindako bertsoak ere asko diren arren, gehienetan bertso horiek kutsu propagandistiko nahiko handia dute eta karlistek nahiz liberalek eginak badira ere, badirudi hartzailea karlista izango dela beti. Galdera nagusia ordea, bertso horiek foruen edo Karlosen alde egiten duten da eta ziurtasun handiz esango nuke, bi joera horien artean banatu behar baditugu, foruen inguruan diharduten bertsoak askoz gehiago direla, euskal karlisten benetako helburua karlismoa ez, baizik eta foruen babesa dela pentsarazten didalarik. Izan ere, Lehen Gerra Karlista, berez, ez litzateke mendebaldeko munduko beste herrialdetan gertatutako absolutismotik liberalismorako trantsizioko prozesutik oso desberdina izan behar. Ordea, non dago diferentzia? Bada, Espainian bertan ere desberdintasunak zeudelarik estatus onena zutenek, hau da, euskaldunek berea mantendu nahi zutela. Liberalismoak foruak bere horretan utziko balitu, horrenbeste euskaldunek bere bizitza emango ote zuten ba Karlosengatik? Ez dut uste. Gainera, Euskal Herriko liberalek beraiek ere Foruak mantentzea nahi zuten, interes ekonomiko bat besterik ez zutelarik, beraz, hauek liberalismoa edo beraien interes ekonomikoetarako onuragarria izango zen foruen moldaketa bat soilik defendatzen ote zuten ere galdera oso ona litzateke.

Bukatzeko, esan beharrekoak esanik, lanean zehar bildu dudan bertso bat ekarri nahi nuke berriz nire hitzetara, Euskal Herrian gertatzen zen benetako egoeraren jakitun baitzen Xenpelar:

...ez da errez ibiltzen
anaiak alkar iltzen,
zer dan entenditu gabe;
ortan galduko gerade!

BIBLIOGRAFIA

- Aguirreazkuenaga, Joseba eta Ortiz De Orruño, José María (1988). “Las Haciendas Forales en Álava, Guipúzcoa y Vizcaya entre 1800 y 1878”. *Ekonomiaz*, 9-10, 69-92. orr.
- Arana, Ander et al. (1987). *Iparragirre*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Artola, Miguel (1999). *La España de Fernando VII*. Madril: Espasa.
- Aurrekoetxea, Gotzon et al. (1986). *Euskarazko Hiztegia*. Bilbo: Adorez.
- Barruso, Pedro et al. (2005). *Historia del País Vasco: Edad contemporánea*. Donostia: Hiria.
- Bazan, Iñaki (zuz) (2006). *De Túbal a Aitor: Historia de Vasconia*. Madril: La esfera de los libros.
- Bullón de Mendoza, Alfonso (2002). *La Primera Guerra Carlista*. Madril: Madrileko Unibertsitate komplutensea.
- Canal, Jordi (2000). *El Carlismo*. Madril: Alianza editoriala.
- Gonzalez, Manuel, Hernando, Josu eta Urrutikoetxea, Jose. (2018) “Primera industrialización. Urbanización e indicadores de bienestar. La ría de Bilbao 1877-1930”. Luis Enrique Otero eta Santiago de Miguel. *La escuela y la despensa. Indicadores de modernidad. España. 1900-1936*. Madril: Catarata, 52-81. orr.
- Piralá, Ángel (2001). *San Sebastian en el siglo XIX*. Donostia: Kutxa fundazioa.
- Zavala, Antonio (1969). *Xenpelar bertsolaria*. Donostia: Auspoa.
- Zavala, Antonio (1992). *Karlisten leenengo gerrateko bertsoak*. Lizarra (Nafarroa): Auspoa.

WEBGRAFIA

Bertsozale elkartearen web orrialdea: Bertsozale.eus